

EREDU ELEANITZA ETA INTEGRATZAILEA

Sistema erabilgarria, baina gainditua

1. Euskadiko Eskola Kontseilua hausnarketa egiten ari da irakaskuntzako hizkuntz ereduen inguruan. Bertan ordezkaturik gauden erakunde guztioi gonbitea luzatu digu bi auziri buruzko iritzia emateko: egungo hizkuntz ereduen etorkizunak nolakoa izan behar duen, eta gure proposamenak gauzatzeko behar diren neurri zehatzak. **Agiri honen bidez, eztabaidara eta parte hartzera gonbidatu izana eskertu nahi dugu, eta, bidenabar, horri erantzuna eman, azken urteotan auziaren inguruan egin ditugun proposamenak berriro mahai-gaineratuz.**
2. Azterketak ezberdinak badira ere, hizkuntz ereduen egungo sistemak gutxienez erreforma behar duen iritziarekin hezkuntza eragile guztiok bat gatoz erabat. Zenbaitetan, salaketak direla-eta ahaztu egiten da 1983an (183/83 Dekretua) sistema hori abian jarri ahal izateko goraipatzeko moduko adoste lana egin zela. Ondorioz, Euskadiko gizartea nabarmen euskaldundu da, batez ere herritar gazteenak. **Gaur egun, 16 eta 24 urte bitarteko adin txikiko bi gazteetatik bat elebiduna da¹, eta hezkuntza sistemak zerikusi handia izan du aurrerapen horretan.**
3. Urteak aurrera joan ahala, ordea, **egungo sistemak eztabaida eragin du, bi alderdi direla-eta, batez ere. Lehenik, helburuak ez ditu espero zen neurrian, hau da, legeak aurreikusitakoaren arabera, bete². Bigarrenik, gure gogoia gizarte elebidun kohesionatua bizitzea izanik ere, gizarte kohesiorik ez dago eta ondorioz A eredia gizartean baztertua gelditzeko arriskua dago, batez ere irakaskuntza publikoko ikastetxeetan, eta, bestalde, kultur kohesiorik ere ez dago, hizkuntz komunitateak nolabait bananduta daudelarik. Azken urteotan emana dugu arrisku horien berri, baita horiei aurre egin beharrena ere³.**

Hainbat proposamen

4. Adostasun maila handia dago “zerbait egin beharra”ri dagokionez, baina proposamenak oso ezberdinak dira, eta, batzuetan, batu ezinak dirudite. Aldagaiak eta xehetasunak alde batera utzita, oinarrian proposamenak **hiru diseinutan bil ditzakegu**. Lehenik, aukera jarraizalea dugu, egungo egitura bere horretan utzi nahi duena, eta, aldatzekotan, euskararen pisua areagotzen duten erreformak ezarri nahi dituena, batez ere A ereduan. Bigarren aukerak murgiltzearen bidea eskaintzen du; horren bidez, guztiontzat eredu bakarra, euskarazkoa, egungo litzateke, gaztelania irakasgai duelarik. Hirugarren aukerak eredu elebiduna -edo hirueleduna- eskaintzen du; eredu horri jarraiki, 1. hizkuntza kontuan hartzeaz batera, gune soziolinguistikoen eta ikastetxeen hizkuntz proiektuen arabera beharrezko neurriak hartuko lirateke 2. hizkuntza indartzeko eta DBH amaituta hizkuntza hori menderatzeko; ahal den neurrian, 3. hizkuntza ere indartuko litzateke.
5. **Egungo egitura oinarrian bere horretan uzteko aukera** eroso da, saihestu egiten baitu gure gizarte anitz honetan hain zaila den adostasun sozial eta politiko berria bilatu beharra. Horren arabera, halaber, Administrazioak ahalegin txikiagoa egin beharko luke irakaskuntza hizkuntz oinarri berrien gainean berregituratzeko eta horrek antolaketan ekarriko lukeen zailtasunari aurre egiteko. A eredia de facto hiltzen uzteko bidea ere izan liteke, legeriak aukera

¹ Euskararen Jarraipena III. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza. (2001)

² LEPV. 18. artikulua (1993)

³ VIII eta IX Kongresua. CCOO-Irakaskuntza. Gasteiz (2000). Bilbo (2004).

guztiak errespetatzen dituela baliatuta. Hizkuntz ikuspegi soilari begiratuta, 2. Hizkuntzak gora egitea ez litzateke eraginkorra izango, batez ere A ereduan, horrekin batera beste aldaketa batzuk ere egiten ez badira, hala nola motibazioari dagozkionak, erabilera bultzatzeari dagozkionak, eta abar. Azkenik, gizarte honek kulturari eta hizkuntz arloan dagoen komunitate bikoizketa gainditzeko aukerarik ez luke emango, ez bailuke konponduko eskolako hizkuntz banaketa. Ikuspegi sozioekonomikotik A ereduko ikastetxe publiko ugari aspaldi daude kezkatuak, eta euskara areagotze hutsak ez luke gaituzteko gizarte sailkapena, behin baino gehiagotan hizkuntz ereduetatik beraietatik eratorria. Horregatik guztiagatik, **aukera honek ez dirudi egokia.**

6. **Euskarazko eredu bakarra** erakargarri egiten da, itxuraz biderik azkarrena, “bakarra”, eskaintzen duelako hizkuntz gutxitua, euskara, benetan menderatzeko. Eredu horren alde egiten dutenek, honako logikari jarraitzen diote: gaztelaniaren erabilera bizi-bizirik dagoenez, ikasleria osoak hizkuntz hau menderatzea ziurtaturik dago beste hizkuntz batean ikasi arren; eskualde batzuk salbuespena izango lirateke, baina horiei arreta berezia eskaini behar da. Euskara irakas-hizkuntza izatea da bide bakarra ikasleek DBH bukaeran legeak ezarritako gaitasunak eskuratzeko. Honela, bi hizkuntzak menderatzea ziurtatzen da. Askotan Kataluniaren adibidea aipatzen da, baina badira aintzat hartuko beharreko aldeak. Euskara ez da hizkuntz erromanikoa, eta, beraz, hura ikasteko katalana ikasteko baino askoz ahalegin handiagoa egin behar da, ez delako gaztelaniaren indoeuropar familiaren adar berekoa. Bestalde, euskararen erabilera soziala katalanarena edo galegoarena berarena baino txikiagoa da⁴. EAEko biztanleen %19k bakarrik adierazi dute beren eguneroko bizitzan euskaraz gaztelaniaz adina edo gehiago mintzatzen direla⁵. Ondorioz, EAEko eskualde askotan ez dago egunerokotasunean hizkuntz erabileraren erreferenterik, eta, beraz, euskara testuinguru akademiko eta formalagoetan ikasten da katalana eta galiziera baino⁶. Hau faktore afektibo eta motibaziozkoen lotuta dago oso, eta hizkuntza ikasteko oinarriko faktoreak dira horiek, ikerketa zientifikoek erakutsi dutenez⁷. Zalantzarik gabe euskararenganako maitasuna eta hezkuntzan euskararen eskaria gero eta handiagoak dira, botere publikoek eragiten ote duten eztabaida egon arren. Baina, hala ere, EAEko herritarren ia erdiei ez zaie axola edo gutxietsi egiten dituzte euskararen aldeko politika aktiboak⁸. Euskararen erabilera oraindik mugatua da gure gizartean, eta politikan, kulturari eta hizkuntzari aurrez aurre dago. Horrez gain, ondorio afektibo eta motibaziozkoak kontuan hartzen baditugu, hizkuntz gutxituan murgiltzeko ereduak ama hizkuntza kontuan hartzen ez badu (EAEko hiztunen %76k gaztelania dute 1. Hizkuntza⁹), **bide laburra da hizkuntz gutxituaren berreskurapenera iristeko, baina ondorioak aurreikusitakoak aurkakoak izan daitezke.**

⁴ CIS (1999)

⁵ Euskararen Jarraipena III. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzak. (2001)

⁶ Etxeberria, Felix (2002)

⁷ Lambert (1970). Gardner (1979). Clément (1980)

⁸ Euskararen Jarraipena III. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzak. (2001)

⁹ Euskararen Jarraipena III. Kultura Saila. Eusko Jaurlaritzak. (2001)

Gure proposamena

7. Honako ezaugarriak dituen eredia proposatzen dugu:

- **Eleanitza**, euskara eta gaztelania irakaskuntza prozesuko hizkuntzatza erabiltzen ditu, eta legeak xedatzen duen moduan, derrigorrezko hezkuntza amaitzean bi hizkuntzak jakitea du helburu, baita Europako Batasuneko hizkuntz ofizial bat, 3. Hizkuntza, ikastea ere.
- **Integratzailea**, bi hizkuntz ofizialak eskola komunitate berean elkarren ondoan daudelako, eta ez dituelako ikasleak hizkuntz ereduaren arabera bereizten.
- **Malgua**, eskola komunitatea bere inguruneko ezaugarri soziolinguistikoetara egoki dadin saiatzen delako. Ildo horretatik, eskualdeak beren euskalduntze mailaren arabera behin bereiztuta, ikastetxeei egokituko zaizkien 2. hizkuntzaren erabilera portzentajeak eskualde horretan nagusi den hizkuntzaren arabera izango dira. Beti ere Administrazioak mugak jarriko ditu, eta horien barruan zehaztuko dira 1. Hizkuntzaren presentziaren gutxienerako mailak.
- **Autonomia**; ikastetxeak bere autonomiatik erabakiko du bere egitasmoaren diseinua, baita hizkuntz bakoitzaren erabilera mailak ere, Administrazioak ezarritako gutxienerako mailaren marko horretan. Horrela bada, ikastetxe bakoitzak derrigor bere ikastetxeko Hizkuntz Egitasmoa eratu behar du, eta hura bere Hezkuntza Proiektuari lotuta egongo da.
- **Egokitua**. Horrek esan nahi du aitortu egiten dela ikastetxeen abiapuntua oso desberdina dela, eta ezin direla, besterik gabe, ibilbide eta epe berberak exijitu, haien artean alderik egongo ez balitz bezala. Kontua ez da legeak ezarritako helburuei uko egitea, ikastetxe bakoitzaren egoeraren eta Hizkuntza Egitasmoaren arabera plangintza aldi ezberdinak ezartzea baizik, ikastetxe guztiak, nor bere erritmoan, aurreikusitako helburura iristeko.
- **Mailakakoa eta ebaluagarria**, bai hezkuntza sistema osoari dagokionez bai ikastetxe bakoitzeko gauzatze eta jarraipen zehatzari dagokionez. Eredu hau ezin da beharrezko esperimenez gabe egin, eta hezkuntza sistemako eragile guztiek horren jarraipena ebaluatu eta etengabe adostu behar dute. Hasieran lurralde historiko bakoitzeko zenbait ikastetxetan zehaztu beharko litzateke, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, DBHn eta DBHOn. Helburua da 3 urteko epean eskaintza ikastetxe guztietara zabaltzea ahal izatea, lehenengo ikastetxe taldean denbora horretan izandako esperientzia eta emaitzez egindako ebaluazioaren araberrako egokitzapenak egin ondoren. Bestalde, ikastetxe bakoitzak aldiro barne eta kanpo ebaluazioak egin behar ditu, neurri egokiak hartu ahal izateko, eta Administrazioarengandik beharrezko baliabideak jasotzeko, eta horrela, legeak ezarritako helburuak zehaztutako epeetan eskura ditzen.

8. Ikastetxe bakoitzaren eskualde soziolinguistikoa dena izanik ere, **Administrazioak gehiegikeriarik gerta ez dadin begiratu eta kontrolatu beharko du**, eta, edozein erataria, 1 Hizkuntzaren gutxienerako mailak ezarriko ditu, honako baldintzei jarraituz:

- Haur Hezkuntza: hauraren ama hizkuntzak eskola jardueraren %20 beteko du gutxienez.
- Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: Lehen Hezkuntzan 1. Hizkuntzatik gutxienez %25, eta Bigarren Hezkuntzan %30.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: eskaintza osoa, bai euskaraz bai gaztelaniaz, ikastetxe bakoitzean edo eskualdeko ikastetxe multzoan. Aukera eman behar da derrigor osorik ez hartzeko, irakasgaika egin ahal izateko. Irizpide hau Helduen Hezkuntzan ere erabil daiteke.
- Atzerriko hizkuntzari dagokionez, Haur Hezkuntzan sartzea aukeran egongo da. Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gutxienez astean 4 ordu izango ditu. Zentru bakoitzak, bere

irakasleriaren prestakuntza aurrera doan neurrian, 3. Hizkuntzan irakatsiko diren curriculum-aren portzentajeak finkatuko ditu. Batxilergoan dauden programak hirueledunak bultzatzen eta zabaltzen jarraitu behar da.

- Lanbide Heziketa: esparru honetan garrantzitsua da hizkuntz normalkuntza, euskarari dagokionez hezkuntza sisteman lortutakoetatik urrun samar dagoelako. LH konplexua denez eta irakasleen hizkuntz ezaugarriak kontuan hartuta, berariazko plana behar du, hezkuntza eta gizarte eragile guztiek adostua.

9. **Azaldutako proposamena teknikoki bideragarria iruditzen zaigu.** Ezin dugu ahaztu esperimendatzeko aldia proposatzen dela. Egoera ezberdinei egokitzea eta malgutasuna dira oinarria, eta “guztiontzako kafea” baztertuta, ibilbideak, erritmoak eta planifikatzeko epeak ezartzen dira, legeak onartutako helburura iristeko. Arrazoizko epe batean helmuga irakasleria guztiz elebiduna izatea da, baina gure ustez dagoeneko baditugu irakasle gaituak hemen proposatzen dugun eredu burutzeko, inor desgaitu gabe, planifikatze egoki baten bidez, guztioi tokia egiten diguna eta profesionalen ezagupenak eta eskarmentua baliatzen duena. Hori bai, Irakaskuntza Pribatua bereziki euskalduntzeko egiten ari diren ahaleginak osatu eta irakasleri osoaren euskarazko eskuduntza hobetu beharko da. Baita 3. Hizkuntzan irakasleriaren prestakuntzarako programak ezartzea ere. Hala ere, **zailtasunik handiena borondate politikokoan datza**, gure erakundeetako ordezkariak gai ote diren eredu hau eta bere xehetasunak adosteko, baita mailakako gauzatzerako beharrezko jarraipena egiteko gai ote diren ere. Euskara, hizkuntza ororen moduan, kultur altxorra da, gurea kasu honetan, ezin da jaurtitzeko armaren moduan erabili, alderdien arteko borroka politikotik atera eta babestua izan behar da, adostasun politikak bilatuz eta gehien atxikipena eskuratuz.

Beste hainbat iritzi: hizkuntz ereduetatik haratago¹⁰

10. Gure proposamena egin dugu eta argi utzi dugu egungo sistemaren erreforma sakona nahi dugula. Bestalde, gogora ekarri nahi dugu aldaketa edozein dela ere mugatua izango dela, **elebitasuna eta kohesio soziala faktore multzo konplexu baten arabera baitira**. Horien artean, hezkuntza sistemaren hizkuntz egituraketa oso garrantzitsua da, baina partziala da berak bakarrik eragiteko. Kontuan hartu behar da adituen arabera esna dagoen ikasle batek %12¹¹ eta %16¹² arteko denbora egiten duela eskola eremuan.
11. Horrela bada, erreforma egokia aurkitu eta euskararen ezagutzak gora egiten badu ere, erabilera ez da bermatzen, eta hori da hizkuntza bati benetan bizia ematen diona. Euskarak oraindik ere balio sinbolikoa du gure gizartearen sektore zabal batentzat. Baina sentipen hori gutxituz joango da belaunalditik belaunaldira erabilera nabarmen igotzen ez bada. Azken hamar urteotan euskaldun kopurua 100.000 lagunetan hazi da. Erabilerak, berriz, ez du ia gora egin¹³. Hizkuntza baten arrakasta neurri handi batean auzi ekonomikoetan hartu-emateko duen gaitasunak ekarriko du. Kapitalak hizkuntz kontuetan ere agintzen du. Ingelesak lingua franca maila lortu badu, hain zuzen honegatik ez bestegatik izan da, ez da izan gainerako hizkuntzen artean nagusitasun

¹⁰ Atal honetan jorratzen diren ideia gehien garapena *Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak EBPN udal-ereduekin uztartzea*. Euskara Geroratzearen Jarraipenerako Batzordea. Euskara Aholku Batzordea. Gasteiz (2004) txostenean aurki daiteke.

¹¹ Pérez, Sonia. Orreka, euskalduntzeko bermatzeko estategia. Erabili.com (2006-05-27)

¹² Zalbide, Mikel. Jornada sobre modelos lingüísticos (06-11-9). Euskadiko Eskola Kontseilua).

¹³ Euskararen Jarraipena III. Kultura Saila (2001)

linguistikoa duelako. Hori hizkuntz gutxituentzako abiapuntu ezkorra denez, oreka lortzeko herritarrek borondate irmoa azaldu behar dute hizkuntzaren kultur ondasuna gordetzeko. **Gizarteak, gurean euskaldunak, ez badu elebiduna izatea erabakitzen, eskolak ezin izango du berak bakarrik eskola elebiduna eraiki.** Eskola erbi baten modukoa izan daiteke, eta elebiduntze nahiz kohesio prozesuan zertxobait aurrerago joan, baina gizartea atzean gelditzen bada, erreferente izateari utziko dio; gainera, erakunde honen gain uzten den zama handiegia izango da, eta gizartearen benetako egoerarekin zer ikusirik ez duen hizkuntz burbuila bihur daiteke.

12. **Zentzu horretan, euskara akademi hizkuntz egoeratik atera behar da, eta komunikazio hizkuntza bihurtu.** Ikastetxe bakoitzak azterketa zehatza egin behar du bere hizkuntz erabileraren inguruan; hori ezinbesteko baldintza da Ikastetxearen Hizkuntz Proiektua eratzeko. Gelatik eta irakas-hizkuntzatik harantzago, erabaki beharko du zein hizkuntzaren erabilera sustatuko den eskolako gainerako guneean. Kurrikularrak ez diren hezkuntza guneeak (jolastokia, jantokia, korridoreak, eskolaz kanpokoak, aisialdiko jarduerak, eta abar) berebiziko garrantzia dute honetarako. Halaber, ikastetxe bakoitzak ingurunearekin nolako hartu-emanu duen aztertu beharko du.
13. **Metodologiari dagokionez,** eguneroko eginkizunetan oraindik asko dago hobetzeko. Oraindik ere nekez erabiltzen dira **komunikaziozko ikuspegiak,** eta gramatikazaleagoak dira nagusi. Oraindik ere hizkuntzak banakako atalak bailiran ikusten ditugu, azpiko hizkuntz gaitasun bera¹⁴ dugula pentsatu ordez. **Hizkuntzak era integratuagoan landu** behar dira, hizkuntz guztietan ikasketa prozesu guztiak egin beharrik gabe; hala, hizkuntza batean eskuratutako trebetasuna berehala beste hizkuntzara eraman eta horri aplikatu dakioke. Halaber, irakasle guztiek hizkuntz kontzientzia handiagoa izan dezaten lortu behar da. **Hizkuntza ikastea ez da irakasgai hori duen berriazko irakaslearen eginkizuna; hizkuntza irakasgai guztietan jorratzeko koordinazioa burutu behar da.** Hori lortzeko estrategietan sakontzea egiteke dago.
- 14.2. **Hizkuntza ikastea afektibotasunari, hartu-emanari eta motibazioari oso lotuta dago.** Faktore horiek ez dira oso ikertuak izan gurean, eta, oro har, ez dira aintzat hartuak izan. Hitzunak errealitateaz duen hautematean eragiten dute, ordea. Horiekin batera, "beste kultura"renganako asmoa dago, harekiko gogoia, axolagabekeria, edo fobia¹⁵. Bada, halaber, hizkuntz praktikotasun sentipena, ikasle etorkinek, batez ere Latinamerikatik etorritakoek, agertzen dutena; izan ere, nagusi den hizkuntza erabiltzen dute eta ez dute gutxituarengana hurbiltzeko ez gogorik ez beharrik.
15. Aipatutakoei lotuta, estrategiak garatu behar dira 2.H ikasleentzat atseginak eta ez neketsuegiak diren jardueretan sartzeko, bestela alferrikako ahalegin zentzugabetzat joko dute, eta, ondorioz, hari muzin egingo. Kimera badirudi ere, ikasle askok beren eguneroko bizitzan euskararen "beharrik" ez baitute, beharrezkoa da komunikazio tresna bihurtzea. **Ez da erraza izango, eta, argi dago ez dela aginduen bidez bakarrik lortuko; komunikazio guneak sortu behar dira, hizkuntza horretan hitz egitea ohikoa, eraginkorra eta atsegina izatea eskaintzen dutenak.**
16. Euskal Eskola Publikoaren Legeak bere 18. artikuluan ezarritakoa hobeto zehaztu beharra dago. **Gaitasun maila era sistematizatuan eta homologatuan neurtu behar da,** DBH amaitzean ez ezik, eskola curriculumeko hainbat unetan

¹⁴ Cummins (1984^a)

¹⁵ Climent (1980)

ere. Horrela, aukera izango dugu zer egin dugun zuzen eta zer oker galdetzeko, eta neurri zuzentzaileak garaiz ezartzeko.

17. Funtsezkoa da Administrazioak eta ikastetxeek alderdi horiek guztiak aintzat hartzea, euskararen erabileraren normalkuntzan aurrera egin ahal izateko. **Ikastetxeek kontuan hartu behar dituzte derrigorrez eratu behar dituzten Hizkuntz Egitasmoetan. Ulibarri programa -edo beste programa bat- zabaldu egin behar da eta hizkuntz aholkularitza ziurtatu ikastetxe guztietan, eta hizkuntza guztientzako proposamen globala eskaini, bakoitzaren indarra kontuan hartuz. Administrazioak ikastetxeetako hizkuntz programak ebaluatu behar ditu, baina ez bakarrik gizarteari beren lorpenen berri emateko, horien helburuak lortzen laguntzeko baizik, eta horretarako beharrezko lanabesak eta baliabideak eskaini behar dizkie. Eleaniztasunean aurrera egiteko pazientzia historikoa behar da. Trebetasuna eskatzen du amore ez emateko adina aurreratzeko, eta, aldi berean, alferrikako hausturak ez eragiteko eta jarrera erregogorak ez pizteko. Beharrezko konplizitateak irabazi behar dira, denok nahi dugun gizarte elebidun eta kohesionatua egiteko.**

Ismael Redondo
Gonzalo Larruzea
CCOOren ordezkariak

